

**"Hablando con Chillida"**

[Egile ezezaguna]

*Zeruko Argia*, 669. zk., 1976-01-04: 30.

"Hablando con Chillida escultor vasco" liburua argitaratu digu TXERTOIA argitaldariak. Martin Ugalde da liburuaren idazlea.

Biriatun izan da liburuaren aurkezpena.

– *Herriaren kasko kaskoan gara Martin eta biok Bidasoa hibaia dugu aurrez aurre.*

– Orain dela ia berrogei urte ama eta biok hibaiz bestaldetik ginen, aita, berriz, hemendik. Hibai ertz batetik bestera ari ginen hizketan. Baina laster uxatu gintuzten, esan dit martinek beste lagunen zai geunden bitartean.

– *Noiz joan behar duzu Hego aldera?*

– Laister, noski.

– *Hablando con Chillida liburuak Hablando con los vascos bururazten du.*

– Orduan ez nuen Oteizaren elkarrizketarik sartzerik izan. Munduan hain ezagunak diren Oteiza eta Txillidarekin egin nitzakeela beste liburu bat pentsatu nuen. Hala hasi nintzen. Baina, oraingoan ere Oteiza kanpoan geratu da. Eta, ez gure erruz.

– *Artista bati hitzegin eraztea erraza ahal da?*

– Txillidari hitzegin eraztea bai. Txillidak bere barrua erraz husten eta zabaltzen dizu. Gizon bezala ere haundia iruditu zait.

– *Tankera honetako beste libururen bat egiteko asmorik ba ahal duzu?*

– Bertsolariekin egingo nuke pozik. Euskaraz jakina.

\* \* \*

Martinek euskaldunon aldeko giroa sortu nahi luke. Horretarako ematen du Euskal Herriaren, euskaldun ospetsuen eta euskaldunon ametsen berri, Euskaldunon lanen zabaltzaile izan nahi du.

*Hablando con Chillida* liburuan bi aldiz bederen ZERUKO ARGIA aipatzen du. Txillidari buruzko bi albiste, astekari honetan irakurriak dituela aitortzen du. Guillen eta Txillidak egindako liburu batek sari bat jaso zuen 1974garrenean "Lo he visto en *Zeruko Argia*" aitortzen dio Martinek Txillidari.

Prix Rembrandt 1975 saria irabazi zuen Txillidak. "He leido ahí, en *Zeruko Argia*, tu carta de aceptación" aitortzen du Ugaldek.

Ohore handi bat gure astekari honentzat. Eskerrik asko.